


HARIA

DANI CAMACHO MAKER-A

Koronabirusaren aurrean langileek dituzten babes elementuen beharra asetzeko Euskal Herrian ere sortu da «Maker» sarea 3D inprimagailuen bidez bakoitza bere etxean ari da sortzen babes materiala, eta horietako bat da Dani Camacho.



«Denon artean egunean 3.000 bisera baino gehiago ekoizten ditugu»

JOSU ODRIOZOLA | 03/04/2020



Danik ekoiztako biserak

3D Inprimagailu batekin ari zara lanean. Zer egiten duzu etxean?

Egunean 10-12 bisera ekoizten ditut, bakoitza ekoizteko ia bi ordu behar ditut eta. Denon artean egunean 3.000 baino gehiago ekoizten ditugu.

Hobby bat bezala hasi zen guztia. Programatzen ikasiz eta neuretzako piezak eta eginez hasi nintzen. Orain ordea hori alde batera utzi eta Gipuzkoako osasun langileentzat maskarak ekoizten hasi naiz. Bisera batzuk egiten ditut langile horientzat.

Babes maskarak sortzen dituzu 3D inprimagailu baten bidez. Nola?

3Dko inprimagailuek ia edozer gauza ekoizteko gaitasuna daute. Dekorazioa, mugikorrek fundak, piezak... Orain Gipuzkoarako bereziki sortu den pieza bat ekoizten nabil, osasun lagileek aurpegi aldean babes gehiago izan dezaten. Modelo batzuk zehaztuta daude; Arabakoa eta Bizkaikoa berdinak dira adibidez, Gipuzkoakoa ezberdina da, ordea. Plantilla edo txantilo bat deskargatu eta hor parametro batzuk aldatu behar dira norberaren inprimagailura moldatzeko, eta hortik aurrera ekoizpen prozesua hasten da.

Sare bat ere sortu duzue 3D inprimagailuekin ari zaretenok. Nola sortu duzue?

Izena «Koronabirus Makers» du sareak, ingelesetik dator. «Maker» bat 3D inpresorekin dabilen pertsona bat da eta hortik dator. Telegram bidez talde handiak egin dira; estatu mailako taldeak, autonomia erkidegokoak ere badaude, eta azkenik lurraldekoak. Ni Gipuzkoakoaren barruan nago. Denok egokitu zaigun eskualdearen araberako modelok ekoizten ditugu. Kontuan hartu behar da, ordea, ez direla biserak bakarrik egiten, arnas makinak eta era horretako gauzak ere egiten baitira. Kasu horretan konplexuagoa da ekoizpena, arnas makinek homologazio bat ere behar dutelako, baina bestela denok erabiltzen dugun lanerako protokoloa hori da.




IMPRIMIR
ENVIAR

NOTICIAS RELACIONADAS

Babes maskarak, etxetik behar dituztenen eskura

ZUZENEAN

FM Bilboaldea 92.2 · Gasteiz eta Lautada 91.5 · Donostialdea 93.8 · Durango 97.4 · Gernika 96.7 · Leitza 95.1 · Bortziriak 103.1 · Urola 91.8 · Goierri 102.2 · Legazpi 94.6



WhatsApp (+34) 644632994

@NAIZIRRATIA

naiz: irratia @NAIZirratia

Egun on Euskal Herria!

👍👍👍 youtube.com/watch?v=_yRVGa...

📺 ZUZENEAN 📺 naiz.eus/zuzenean.html

NAIZ Irratia

Nazio mailako euskarazko irr...
naiz.eus

1d

naiz: irratia @NAIZirratia

📍 Londresen soilik ostegunetan egiten dute bialo eskerrak emateko

📺 Futbol klubek dirulaguntzak eskatu dituzte jokalariek ez diren langileak ordaintzeko. Baina futbolarien soldatak mantentzen dira

Bertan bizi den @KristinaZA#Koronabirusa-ren inguruan irratia.naiz.eus/eu/info_irrati...



10d

Jende asko ari da animatzen, EAEn 1.600 pertsona inguru gara, Gipuzkoa mailan 280. Kontuan hartu behar da gainera jende batek inprimagailu bat baino gehiago duela. Nire kasuan inpresora bakarra daukat, eta egunean 10-12 bisera ekoizten ditut, bakoitza ekoizteko ia bi ordu behar ditut eta. Denon artean egunean 3.000 baino gehiago ekoizten ditugu. Orain arte 20.000 egin dira EAEn, Gipuzkoan 7.500 inguru. Osakidetzan, zaharren egoitzetan, farmazietan edo anbulantzietan erabiltzen dituzte gero.

Nola egiten duzue ekoiztakoaren banaketa?

Erakunde asko daude hemen sartuta. Logistika kontuetan DYAK laguntzen du. Produktzioan enpresa pribatuak ere badira taldean, *Maier* eta *Walter Pack* adibidez. Automozio alorrean lan egiten duten enpresak dira eta modu industrialean ekoizten dute. Gipuzkoa mailan Irungo eta Oiartzungo Udalek ere laguntzen dute. Materialei dagokienez ere baditugu laguntza profesionalak, eta norbanakoek ere ematen dizkigute laguntzak.

Nola hasten da ekoizpen prozesua eta ekoiztako nola iristen da langilearengana?

Pertsona bakoitzak Telegram taldera sartu behar du lehenbizi. Ondoren talde horretan inprimatu beharreko plantillak deskargatu eta produktioari ekin. Ez dago ez ekoizpen kopuru minimo ez maximorik. Garrantzitsuena bakoitzak ahal duena ekoiztea da. Ekoiztako piezak DYAK jasotzen ditu eta garrantzitsua da entregatu aurretik ura eta lejiarekin garbitzea eta desinfektatzea. DYAKo langileak etxe ingurura etortzen dira ekoiztako piezak jasotzera eta batzuetan, trukean jendeak dohaintzan emandako plastiko bobinak ematen dizkigute lanean jarraitu ahal izateko. Horren ostean Irunera ematen dituzte biserak montatzera. Han PVC-zko xafila batekin montatzen dituzte, eta horren ostean beharraren arabera banatzen dira leku ezberdinetara.

Norbaitek ekarpen bat egiterik nahi balu, zer egin beharko luke?

Hiru gauza garrantzitsu hemen. Aktiboki lagundu daiteke norberak bere 3D inprimagailua erabiliz. Baita donazioak eginez ere, eta eskariak ere jasotzen ditugu. Jende batek ere behar dituelako era honetako piezak. Gugana iristeko coveiduskadi.net webgunean sartu behar da eta bertan aurkituko duzue informazio guztia. Donazioaren bat egin nahi bada ez da dirurik onartzen; baina PVC laminak, goma elastikoak, guanteak, metakrilatoa edo plastiko bobinak behar ditugu. Horretarako ere coveiduskadi.net webgunean aurkituko dituzue jarraibideak, baita eskariak egitekoak ere.

Amaitzeko eskerrak eman nahi dizkiet DYArri kudeaketa guztia egiteagatik, material dohaintzak egiten dituzten guztiei eta baita «Maker» sareko guztiei ere. Eta nola ez, baita osasun langileei ere.